

artikulu nabarmenak
artículos destacados

apirila / abril



DÍAZ-AGUADO, María José, Rosario Martínez-Arias y Ana Ordóñez. [Prevenir la drogodependencia en adolescentes y mejorar la convivencia desde una perspectiva escolar ecológica](#). Revista de educación extraordinaria, 2013, 338-362. orr.

Artikulu honetan "Prevenir en Madrid" egitasmoaren eraginkortasunaren ebaluazioa egiten da. Egitasmoa abiarazteko, eskola-testuinguruetan **droga-menpekotasunak prebenitzeko programan** ezarritako jarraibideei men egin zaie; egitasmoaren edukietan, gizarte-trebetasunak eta eraginak aintzat hartu dira; eta parte-hartzean oinarritutako prozedurak aplikatu. Ebaluazioan, emaitzak programa aplikatzen ez duen kontrol-talde batenekin alderatu dira. Horretarako, bi galdetegi erabili dira: batean, droga nagusien kontsumoa eta kontsumo horrekin lotutako jarrerak eta arrisku-jokaerak ebaluatzen dira; besteak, eskola-bizikidetzan jartzen du arreta. Emaitzek aditzera ematen dutenez, komenigarria da droga-menpekotasunen prebentziorako programak bizikidetzat hobetzeko testuinguru orokor batean txertatzea.



VELA, Rosa M. **La inclusión de las altas capacidades**. Aula de innovación educativa, 228, 50-54. orr.

Gaitasun handiko ikasleek ikaskuntza-ezaugarri bereziak dituzte, garatzeko giro berezia eskatzen dutenak. Giro hori sortzeko, ikastetxeek antolakuntza-neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, lanerako kultura malgua eta tolerantea ahalbidetuko dutenak, kideen arteko aldeak aintzat hartuko dituztenak, bai eta esku-hartzearen autonomia ere. Hori lortzeko, zenbait urrats jarraitu behar dira: prestakuntza klaustro osoarentzat, irakasleen behaketa zuzena, aniztasunaren arretarako batzordeko kideak ere inplikatzeko, malgutasuna ikasleak taldekatzean eta ordutegian, elkarlana, zeharkako lana familiekin, ikastaroaren balorazioa urtean bi aldiz, gaitasun handiko ikasleak agiri ofizial guztietan sartzeko eta lanerako giro ona sortzea.

PERTSONA
HELBURU

COMPROMISO CON
LAS PERSONAS

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA
KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA